

Legearen ostikadak kale gorrian utzi ditu

Etxebizitza eta hipoteka garestitzeak kaltetu garbi batzuk ditu: aita bananduak. Dibortzio lege bidegabearen ondorioz, gizon gehientsuenek etxetik alde egin behar dute, baina hipotekaren %50a eta seme-alaben mantenu-pentsioa ordaintzen jarraitu. Ekonomikoki xahututa, goizetik gauera aterperik gabe ikusten dute euren burua, eta askotan, etorkizun handiegirik gabe.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Lander Arbelaiz

JESUS CELADA 47 urteko donostiarra 2002an banandu zen eta etxea emazteari eta bien semeari utzi behar izan zien. Gurasorik gabe –gazte zenean hil zitzaizkion–, pisu partekatuak, udal aterpea, bere argazkilaritza-estudioa, Emausen egoitza... izan ditu bizitoki ordutik. Egoera ekonomiko gogorrek eraginda edanari eman zion eta Gizakia Helburun dago orain, azken fasean. Edanaren erruz hiru urte daromatza 10 urteko semea ikusi gabe –telefonoz hitz egiten dute–, baina lehenbailehen errehabilitazioa amaitu, haurraren bisita-erregimena berreskuratu eta pisu sozial batean sartu ahal izatea du amets: “Etxebizitza duin bat eskatzen dut, nire haurra bertara eraman ahal izateko, leku bat izan dezan aitarekin behar bezala egoteko”.

Muturreko kasua dirudien arren, halako egoerak eta dramatikoagoak ohikoak dira gizonezko bananduetan. “Bat-batean eskutitz bat jasotzen duzu hamabost egunetan zure etxetik alde egin behar duzula esanez, dibortzio legeak beti emakumearen alde egiten duelako, eta kale gorrian ikusten duzu zure burua. Nik negozio bat nuen, ekonomiko-ki ongi bizi nintzen, eroso... eta begira ieza-za- zu orain. Hau inpotentzia!”, dio Celadak.

Bikotea banandu edo dibortziatu egiten denean, hitzarmen bat adosten da eta horretan etxebizitza eta seme-alaben inguruko akordio-rik lortu ezean –eta gehienetan ez da adostasunik izaten–, zaintza ia automatikoki amari ematen zaio Espainiako Estatuan. Adin txikikoaren zaintza ez duen pertsonak etxetik joan behar du eta haurraren mantenu-pentsioa ordaindu: bere soldataren %25 inguru lehenengo haur- rengatik eta portzentualki besteengatik, kon- tuan hartuz seme-alabek 24, 25 edo urte gehia-

go bete arte ez dutela agian independentzia lortuko. Gainera, dibortziatuen profila 27 urte- tik 40ra bitartekoa izanik normalean hipoteka- tuta egon ohi direnez, gizonezkoak bota duten etxeko hipotekaren %50a ordaintzen jarraitu behar du.

Ondorioa? Bizirauteko zailtasun handiak. Adibide bat jartzearren, 1.200 euroko soldata- rekin, seme edo alaba bakarra duen aita banan- duak 300 euro ordaindu beharko lituzke man- tenurako eta beste 500 euro 1.000 euroko hipotekari aurre egiteko. Hilean 400 euro baino ez litzaizkioke geratuko bizitzeko eta etxebizi- tza duin bat eskuratzeko. Kasu askotan, fami- liarren baten aterpea bilatu ohi du eta ahal duena pisu partekatura joaten da ondoren. Pisu sozial, aterpetxe, ego- kitutako garaje edo pentsioetara jotzen du hainbatek, campinga bera ere, garai batean alternatiba zen arren, garestiegia delako egun. Kasurik kru- delenetan, autoan lo egiten bukatzen dute. Caritas erakundeak aditzera eman duenez, halako egoera jasan duten gizonezko bat baino gehiago dago gaur egun ate joka dituzten eskaleen artean.

Kidetza EAEko Aita eta Ama Bananduen Federazioko presidentea da Justo Saenz. Bere hitzetan, hausturarekin pertsona batzuek dena galtzen dute eta adinaren arabera ez dakite euren bizitzarekin zer egin: “Lehengoan 70 urteko gizon bat iritsi zitzaigun elkartera, male- tatxoarekin, etxetik bota zutela eta nora joanik ez zuela. Bere buruaz beste egingo zuela erre-

Zaintza partekaturik gabe,
haur gabekotzat hartzen da
aita laguntzaren bat
eskatzeko garaian

Fran Pintado (ezkerrean) eta Jesus Celada aita bananduak dira. Etxetik alde egin behar izan ostean, bietako inork ez du ez seme-alaben zaintza partekaturik eta ez etxe propiorik lortu (ez erosita eta ez alokairuan).

Aita bananduak





Justo Saenz, Kidetzako presidentea

“Gizonezkoak ‘aita-txeke’ bihurtzen ditu legeak, ordaintzea beste helbururik gabe. Ama berriz, bera bakarrik seme-alabak zaintzera kondenatua dagoela dirudi”.



Jesus Celada, sei urte bananduta

“Pisu sozial bat eskuratzea dut amets. Etxebizitza duin bat eskatzen dut, nire haurra bertara eraman ahal izateko, leku bat izan dezan aitarekin behar bezala egoteko”.



Fran Pintado, bi urte bananduta

“Emazte ohiari jarri nion salaketagatik 20 euro baino ez zituen ordaindu. Alderantziz izan balitz, aldentze-agindua izango nukeen, edo seme-alabak ez ikusteko agindua”.

pikatzen zuen behin eta berriz, baina lortu genuen instituzio sozialen bitartez nolabait aurrera ateratzea. Pertsona horrek gurea bezalako elkarterik aurkitu ez balu, auskalo nola bukatuko zukeen...”.

Arazo serioa dela dio Saenzek: batetik, dibortzioak geroz eta ugariagoak direnez, egoera geroz eta ohikoagoa da. Urtean 5.400 dibortzio inguru jazotzen dira EAEn eta gehienetan gaizki bukatzen da harremana —banaketaren lehen arrazoa infidelitatea da eta bigarrena apatia—. Bestetik, pertsona bananduaren eboluzioa zaila da: “Hots, gazteek etxebizitza erosteko arazoa izan dezakete, baina euren egoerak hobera egin ohi du, bizitzarako proiektua dute eta adinarekin handitzen doan ahalmen ekonomikoa. Bananduaren kasuan aldiz, orainari lotutako proiektua dauka, eta jasateko gauza ez bada, gainbehera joan daiteke. Ekonomikoki ezin du biziraun, pentsioa ordaintzeari utz diezaioke, seme-alabekin duen harremana galdu...”.

“Aita-txekeak” eta seme-alaben etxe eskubidea

Adin txikikoen eskubidea bermatu nahi du dibortzio legeak. Horregatik, etxebizitza amaren esku uzten da seme-alaben onerako, honek etxebizitza duina izan dezan, baina ez da kontuan hartzen haurrak urtean gutxi gorabehera 126 egun pasatzen dituela bisita-erregimena duen aitarekin, eta aitak ez badu bizileku duinik, haurrak ez dauka non egon aitarekin. Nora eraman seme-alabak, campingera? Pisu partekatura? Pentsiora?...

Halaber, seme-alaben mantenua guraso biek ordaintzen dute, baina amak haurra zaintzen ematen duen denbora ekarpena den bitartean, aitaren ekarpena dirutan baino ez da kontabilizatzen. Saenzek esanetan, “hori epai matxista da, gizonezkoak orain gehiago inplikatzeko dira haurren zaintzan, baina ‘aita-txeke’ bihurtzen ditu legeak, ordaintzea beste helbururik gabe. Ama berriz, bera bakarrik seme-alabak zaintzera kondenatua dagoela dirudi eta bizitza asko mugatu diezaioke horrek”.

Fran Pintadok bi urte daramatza bananduta eta bi seme-alaba dauzka, 11 eta 6 urtekoak. “‘Aita-txekeak’ edo ‘aita-kanguruak’ gara eta azkenean gaizki hezten ditugu, eurekin asteburuan baino ez gaudenez konpentsatzen saiatzen garelako. Gehiegi mimatzen badituzu burutik behera kaka egiten dizute eta errieta gehiegi egiten badiezu berriz, galdu egiten dituzu, erraza dute amarekin bueltatzea”. 37 urteko erreteriar honek oraindik ez du etxebizitza independenterik lortu: hasieran anaiak hartu zuen berean eta duela hilabete batzuetatik neska-lagunarekin bizi da, azken honen etxean. Hezurretako gaitz baten erruz bajaran egon da denbora luzez eta orain enpresatik

bota dute, ezin duelako lanik egin. Ondorioz, pentsioa eta hipoteka ordaintzeko arazoak ditu. “Ahalmen ekonomikoa gutxitzean, helegitea aurkeztu daiteke haurraren mantenua gutxitzeko eskatuz, baina helegitea jartzea azkenean garestiago ateratzen zaizu mantentutik kenduko dizuten portzentajea baino”.

Legea oztipo

Legeak gizonezkoa diskriminatzen duela kritikatu du Pintadok. Bere kasuan, emazteak adarrak ipini zizkion eta dibortzioa horrek eragin arren, Pintadok utzi behar izan zuen etxea. Hasieran, seme-alabek asteburua berarekin pasatzen zutenean, gauez amak jaso behar zituen, aitarekin non lo egin ez zutelako, eta haurren bila ez joateagatik salaketa pare bat jarri zizkion erreteriarrek emazte ohiari. “Salaketa aurrera atera izan balitz 20 euro baino ez zituen ordaindu behar izango, eta alderantziz izan balitz, ziurrenik aldentze-agindu bat izango nukeen, edo seme-alabak ez ikusteko aginduren bat”.

Zaintza partekaturik gabe, aita haur gabekotzat hartzen da babes ofizialeko etxebizitza edo laguntzaren bat eskatzeko garaian. “Legeak dio urtean 126 egun inguru egon behar dutela seme-alabek aitarekin, gainera mantenua pasatzen du, baina gizarte zerbitzuetara joan eta laguntza bat eskatuz gero, ez dauka lehentasunik, haurrik izango ez balu bezala”, azaldu du Saenzek. Are gehiago, etxebizitza salduz gero, berau okupatzen duenak (amak) ez du Ogasunean zergarik ordaindu behar, bere etxebizitza saldu du, baina beste zatiak, alokairuan edo gurasoen etxean egon arren, Ogasunari %30eko zerga ordaindu behar dio, “bigarren etxebizitza” duelako, ez baita bertan bizi. “Izugarrizko bidegabekeri konparatiboa da eta Foru Aldundiko Ogasunari gure kexa adierazi diogu, baina oraingoz ez dute ezer egin”, salatu du Kidetzako presidentek.

Etxebizitzarena ere arazoa da laguntzak eskatzeko garaian: nonbait errolatuta egotea beharrezkoa da, eta pentsioan edo autoan bizi denak zail dauka. Pintadok 14 urte eman zituen Erreterian, baina anaiaren etxera Pasaia aldatu zenean, han errolatu behar



1.200 euroko soldatarekin, haur bakarra duen aita bananduak 300 euro ordaindu beharko lituzke haurraren mantenurako eta beste 500 (edo gehiago) hipotekari aurre egiteko. Hilean 400 euro geratuko litzaizkioke bizirauteko.

izan zuen. Bada bai Pasaia Udalak –denbora nahikoa ez eramateagatik– eta bai Erreteriarrek –errolatuta galtzeagatik– laguntzarako eskubidea ukatu zioten.

Salaketa faltsuak

Horretaz gain, tratu txarren gaia hain larria izanik ere, hainbatek salaketa faltsuak jartzen dituztela adierazi du Justo Saenzek, etxea eta zaintza errazago lortzeko edo senarra gaztigatzeko. Espainiako Estatuko Justizia ministroaren arabera, 2007an tratu

txarrei buruzko 3.500 salaketa faltsu inguru egon ziren. Saenzek hitzetan, “neurriak hartu behar dira salaketa horiek aurretik aztertzeko, zuzenean ertzaina bidali gabe. Legeak dio emakumearen hitza froga dela eta automatikoki kondenatu egiten zaituzte. Gau bat edo bi giltzapetuta emango dituzu, etxetik eta seme-alabengandik urrun, horrek uzten duen estigma-ekin”. Azkenean, kaltetuta ateratzen direnak benetan tratu txarrak jasaten dituztenak dira.

Gezurra direla frogatuta ere, ofizioz ez dira salaketa faltsuak pertsegitzen, artxibatu baino ez dira egiten eta zigorrak ez dagoenez, iruzurrera tentatuta egon daiteke hainbat. Saenzek gertutik ezagutzen ditu halakoak, emazte ohiak tratu txarren inguruko salaketa ipini baitzion duela urte batzuk: “Haurra zegoen eskolatik ateratzea eta nigandik urruntzea lortu zuen horrekin. Epaiketa baino egun bat lehenago, salaketa faltsua kendu eta ez zuen zigorrak jaso; niri aldiz, izugarri kostatu zait nire semearekin harremana berreskuratzea”.

Noski, aitaren egoeraz ari garen arren, ez dugu ahaztu behar amarena ere ez dela erraza: seme-alabaren kargu egin behar du eta ekonomikoki kaltetuta ateratzen da –gainera, aita arazo ekonomikoak baditu, haurraren pentsioa jasotzeko utzi diezaioket. Kidetzak egindako inkesta baten arabera, emakumeek beraiek ez dute pisuan geratu nahi, denarekin apurtu nahi dute, baina etorkizunik gabe ikusten dute euren burua; nora joan? Dibortzioak ekonomikoki bi aldeak kaltetzen ditu eta bakoitzak bere ongizatea bilatzen du. Saenzek ustez, babes ofizialeko edo alokairu sozialeko etxebizitzaren aukera emango baliete, gatazka gutxiago egon-

Ipar Euskal Herrian eta Europako herrialde gehienetan zaintza partekatua eta ondasun-likidazioa da nagusi. Lege horrek berdindu egiten ditu bi aldeak

Campinga, higiezin agentziak eta bankuak

Duela urte batzuk, ohiko bihurtu zen nora joan ez zeukaten aita bananduek campingaren hautua egitea; are gehiago, camping batzuk "dibortziatuen campinga" izenarekin eza-gutzen ditu oraindik jendeak. Egun, ordea, bestelakoa da egoera: *mobil home* direlakoan prezioa asko igo da eta beste bezero mota bat nahiago dute campingetako arduradunek —ordaintzeko arazoak izan ditzakeen sektorea da aita bananduen—. Roulottea erosi eta bertan bizi den dibortziaturik baden arren, kasu isolatuak dira, campin-gean hileroko 500-600 euro ordaintzea baino merkeago ateratzen baita pisu partekatua. "Eta gainera, ez da soluzioa;



ez zait iruditzen bizitzeko modu duina denik, ezta haurra eramateko lekua ere", azpimarratu du Jesus Celadak.

Babesturik ez dagoen etxebizitza erosi edo alokatzea ere garestiegi ateratzen zaio soldataren portzentaje txiki batekin bizi behar duenari. Hala ere, urrats hori eman dezakeenak logela bakarreko minipisuetara jotzen du, higiezin agentzietako datuen arabera. Banku batzuk ere hasi dira sektore honen eskari berrietara egokitzen eta banandu eta dibortziatuei zuzendutako mailegu eta hipoteka bereziak atera dituzte, BBK-k eta Nafarroako Kutxak kasu.

go lirakeke, baina legea ez dago egungo errealtatera egokitua.

Ondasun-likidazioa eta etxebizitza alternatibak soluzio

Ipar Euskal Herrian legea egokiagoa da, Frantziako Estatuko ereduak etxebizitzaren afera errazten baitu. Hots, bikoteak segituan derri-gortzen dituzte bitartekaritza familiarra joa-tera, akordioa bultzatzeko, lortu ezean epai-leak automatikoki zaintza partekatua emango die oro har eta etxebizitzaren inguruan inongo adostasunik ez badute, berehala saltzera behartuko ditu, ondasun-likidazioa egitera, alegia. Zaintza partekatua duten Europako beste herrialdeetan ere —eta hori da ohikoa— eredu bera jarraitzen da. Azken finean, bi aldeentzako bidezkoa dirudi, legearen aurrean behintzat berdindu egiten baititu. Espainiako Estatuan ordea, zain-tza partekatua oso arraroa da eta ondorioz, baita ondasun-likidazioa ere. Gainera, etxebizitza sis-tema desberdina da atzerrian: jende asko alokairuan bizi da, Estatua promotore handia da eta etxebizitza-rekin espekulatzeko ez da normala.

Haatik, Kataluniako Generalitatea prestatzen ari den lege erreformaren arabera epai-leak zaintza partekatuari eman beharko dio lehentasuna, bikotekideen adostasuna ez dagoen kasuetan. EAE eta Nafarroako administrazioek ere arlo hau arautzeko eskumena dute, baina ez da oraingoz halakorik eman. Beraz, Kideztan lehentasuna ematen diote alokairu sozialeko eta babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikitzeari. Presidentek ez du ondo ikusten egungo sistema: "Ez dago apenas pisu sozialik eta baldintzak betetzen ez dituen jende askok etxea lortzen du, banandu edo dibortziatuei dagokien kupoa baztertuz. Gainera, Donostiako Intxaurrondo auzoan

adibidez, iaz pisuen %60 bete gabe geratu ziren". Denaren gainetik, aldean arteko akordioa lortzea da soluziorik onena eta bitartekari-tza familiarra garrantzitsua da gatazka saihesteko.

Administrazioak ez duela esku hartzen ere kritikatu du Saenzek. Eusko Jaurlaritzatik hainbat keinu baikor jaso dituztela dio, eta Espainiako Etxebizitza Ministerioa aztertzen ari da gazteei zuzenduriko alokairurako 210 euroko hileroko laguntza bananduei ere ematea, baina oro har "adabakiak jartzen dira gure aldarrikapenen arabera. Udalek arrazoia ematen digute, baina ekintzetara pasatzeko garaian ez dute etxebizitza arloan duten eskumena baliatzen. Kontua da politikariak oso harroak

direla eta diote: dibortzioaren legearekin bi urte baino ez dar-matzagu eta guztien adostasuna-rekin onartu genuen; nola aldatu-ko dugu hain goiz?".

Aldaketarik ezean, ordea, eta dibortzioak goraka doazela kon-tuan hartuz, gain hartuko digun arazo sozial larria aurreikusten du Saenzek, bere ustez Administra-

zioak oraindik ez baititu arretaz aztertu bana-ketek ekarriko dituzten benetako ondorioak. Jesus Celada eta Fran Pintado dira ondorio horiek jasan dituztenetako bi eta etorkizuna ilun ikusten dute, baina iparra galdu gabe borrokan jarraitzeko ilusioarekin. "Lana, etxea eta nire semea berreskuratzea dut erronka, beraz badut zereginik aurretik", diosku Celadak.

Bikote askok ere bidegurutzean ikusten dute euren burua harremanak hausterakoan. Malda psikologiko, emozional eta ekonomiko hori gainditzeko, bidetik kendu beharreko harri asko dago oraindik. ■

Kideztan lehentasuna ematen
diote alokairu sozialeko eta
babes ofizialeko etxebizitza
gehiago eraikitzeari, dibortziatuek
nora joan izan dezaten

http://www.argia.com/bideoak/helbidean_bideo-erreportajea.